

# Luis Mari Mujikaren poesiaren alde formal batzuk

ARANTXA M. ESNAOLA

## I.- Sarrera

Ez da erraza poeta baten poesi sorkuntzaren klasifikapena egitea, era askotara gara baitezke bere baliapide literarioak, tematika, metrika e.a. kontutan edukiz. Modu orokor batean honela sailka daiteke:

- Edertasuna bakarrik bilatzen duen poesia. Olerki tipo horrek gauzen alde birtuosista isladatuko luke, alde formal oso zaindu bat, helburu nagusia edertasuna izaki.
- Poesia *soziala* litzateke bigarren tipoa klasifikapen honetan. Olerki horiek arazo sozialak adieraziko lituzkete, beraietan —alde formala ez— isladatzen duen *mezua* baizik delarik printzipalena.
- Hirugarren atalean tematikari garrantzia gehiena eskainiko lioken poetika letorke, alde formala, dena den, ahortzi gabe.

Lan honen bidez Luis Mari Mujikaren poesigintza sinboliko eta sozialaren (eta maiz surrealistaren) teknika literarioak aztertuko ditugu, azkenean zein ataletan sartzen diren bere olerkiak klasifikapen honetan ikus dezagun.<sup>1</sup>

---

(1) Hona hemen azterketa honen materialetan aipaturik azaltzen diren Luis Mari Mujika-ren poesi liburuak: *Bide-giroak* Edit, Sendo, 1963, *Urdin eta burdin* Edit, Auñamendi, 1965, *Hitzak ebakitzean* edit. Kriseilu 1975 (Espainiako Kritika saria),

## II. Olerkien alde formalak

### II.1. Konparaketak

Autorearen liburuetan *konparaketak* nahiko ugari azaltzen dira. Estilistikaren aldetik metaforak eta konparaketak nahiko loturik agertu ohi dira, baina metaforak ulermenaren aldetik zailagoak dira, termino erreala eta irudiaren arteko nexoa ez baita hain erraz antzematzen, autoreak eginiko erlazioa nahiko pertsonala gertatzen baita. Konparaketak, bada, ulergarriagoak dira bi irudien arteko lotura (eta perpausetan erlazioa) "bezelako", "bezain", "iduri" e.a., formulen bitartez azaltzen delako. Konparaketa ugari dago aztertu dugun Mujikaren poema liburuetan; klasifikapen bat eskatzen dute.

#### a) *Pertsona eta animalien arteko konparaketa*

Idazlea "zeru goien amorruan dago", "egaztien moduan" (*Urdin eta burni*), Santa Krutz apaiza mendira doa zaldi baten gainean "basurde" bizkorra bezala, eta Mola jeneralak hiena baten antza du. Beste momentu batean, heriotzara daramatzaten gizonak hiltegirantzko "txekorrek" konparatzen dira (*Zortziko hautsiak, Barren ibarrak*)

Gizona eta zekorraren arteko konparaketak dira ugariena Mujikaren poesigintzan; adibidez, Eustako Mendizabal lurrian "zekor bat bezala" hilda dago; mutil bat kalean hilda geratu da zekorra bailitzan (*Arnas gaiztoa, Erromantzeen airera...*) "Zekorraren" irudiaren ondoan *basurdearena* ere ageri da behin baino gehiagotan; esana dugu Santa Krutz apaiza *basurdearekin* konparatu duela. Beste olerki batean Xabier Etxebarrieta elkartzen du animalia berarekin (*Arnas gaiztoa*). Konparaketa alde batera utziaz, kasu honetan *deshumanizazioa* ere ematen da, pertsonak animalien berezitasunak asimiltzen baitituzte; honela, gizakiek animalien irudia azaltzen dute, Santa Krutz apaizak *basurdearena*, kalean dagoen mutilak *zekorrarena*, e.a.

---

*Zortziko hautsiak (Barren ibarrak)* Edic. Vascas 1978, *Herria eta bidea (Hitzak eta kezkak)* Edic. Vascas 1978, *Arnas gaiztoa (Erromantzeen airera...)* Edit. Kriseilu, 1979. Hemengo lan honetan ez dira aztertzen Luis M. Mujikaren beste *Lehenaren ur sakonetan* poema (Egan, 1981) eta *Aire neurtuak*, Edic. Haranburu, 1984 (Eusko Jaurilaritzaren *Lizardi saria*).

b) *Barneko sentimenduak, zalantzak, galderak, e.a., animaliekin edo hauen ekintzekin konparatuz*

“Ah, eremuan nola basoiloaren ohiuak / hilargi hotzaren distira ebakian”. Erantzun gabeko galderen eta basoiloaren ohiuaren artean halako berdintasuna atzematen du poetak. Beste testu batean barneko galderek idiaren zangoek bezala zanpatzen dutela esaten da; poetari galdera existentzial asko sortzen zaio, eta denek ez dute erantzunik, lehen azaldu dugun bezala, eta horrek mina ematen dio, barneko malura sortzen (grinaren indarra ere basoko piztiaren kolpeekin elkartzean bezala (*Hitzak ebakitzean*).

Bestalde, ametsak hegazti izuti bezala joaten zaizkiola dasaigu poetak, eta beste olerki batean grina piztia beltzaren gisakoa dela (*Hitzak eta kezkek*).

c) *Barneko sentimenduak beste edozein elementurekin konparatuz*

Zalantzak adarrak bailiran “zutik” daude. Beste kasu batean bere barneko galderak eskultura bezain handi, altu, garden dira; galderak ez ditu sailkatzen, soilik, eskultura baten kerantzan atzematen ere. Dudak kolpatzen du poeta kazkabarra bailitzan (sentimendu bat fenomeno atmosferikoarekin erkatuz).

Hala ere, beti ez zaizkio zalantzak eta erantzungabeko galderak sortzen; batzutan esperantza ere sentitzen du, eta esperantza horrek indarra lortu duela adierazteko eguerdiko argiaren ideia dakar. Esperantzak gutxi irauten du; lehen esan dugunez, autoreari ametsak hegazti izuti bailiran joaten zaizkio, orain, berriz, desirak urak bezala isurtzen dira. Lehen animalia batekin egiten bazuen konparaketa, orain naturarekin —ibai batekin— dago (beste behin, uraren aipamena, eta oroia olatu gizenaren antzean sortuko da barnean, eta kataratak bezala jaitsiko (*Hitzak ebakitzean*). Uraren aipamena ugaria da aipaturiko poemetan, bai konparaketetan eta baita metaforetan. Azken puntu hau geroago aztertuko dugu.

*Barren ibarrak* poema-liburuan ere lehen azaldiriko konparaketa-tipo ugari: grinak “hortzak” dira, saminak “kristalak” (objektu batekin konparaketa eginez); geroago idazleak —ardo gizona bailitzan— min-dura edaten duela esanen digu samina likidoarekin konparatuz; ho-

rregatik da posible “mindura ari naiz edaten” irudia. Biziaren mi-kaztasunak, berriz, limoi baten zaporea du (*Hitzak eta kezak*).

Autore honetan elementu *existentzialistak* biziki agertzen dira. Bizia galderaz beteta dago, eta galdera horientzat poetak beti ez du erantzunik aurkitzen, horrek min izugarria ematen diolarik; bizia zalantzaz beteta dago, nahiz eta batzuetan esperantzak irabazi. Hori kontutan edukirik, ez da harritzekoa bizia limoia bezain mikatza dela esatea. Hala eta guztiz, Jainkoaren presentzia ukaezina da bere lehenengo bi liburuetan. Presentzia hori bizia da *Urdin eta burni* liburuan, baina baita ere beste liburuetako olerkietan batzuetan. “Izadia zait eliza” esaten du *Hitzak eta kezak* liburuaren olerki batean. “Gauzetan nik poz oro, / oro hau da Jainko”. Idazleak paisajea aurkitzen du Jainkoa, nahiz eta ez beti. “Jauna, zaren, ez zaren, / ari nauzu galde (*Arnas gaiztoa*). “Ezin jakin...Noiztik, ba, / galdera latzok nik...?”, “Jainkorik baden, ez / den nauzu jakinmin”, “Jainkoa, Jainkoa/ luzaro zait isil...” (*Hitzak eta kezak*). Haren bila dabil, bada, poeta eta zuhaitzei galdetzen die; haien erantzuna adierazgarria da: “Zabaldu begiak, edonondik dabil”. Laburpen bezala, galdera existentzial asko aurki dezakegu, baina esperantza ere nabarmena da batzuetan: “Nor dago ate joka?/... Esperantza da / atoz, zaude enekin” (*Hitzak eta kezak*).

d) *Pertsona eta gauza*  
*edo naturaren arteko konparaketak*

Autorearen eta maitearen artean sortzen den batasuna “ura” eta “lur egartien” artekoa bezain bortitza da (*Hitzak ebakitzean*).

Maitea “sua bezala” eskaini zen, pasioaz betea, eta Garbiñeren izterrak “hibai gordinak” ziren. Konparaketekin jarraituz, beste adibide batzuk: “Maitea plaia bezain beltzarana da” (*Hitzak eta kezak*). Maiteari, ez joateko beregana, “hibai on bezala” etortzeko baino eskatzen zaio (*Arnas gaiztoa*). Kasu horietan elementu konparatzaileak “sua”, “ura” eta “lurra” dira, eta nagusiena “ura” —bere forma ezberdinetan— (ura, itsasoa, hibaiaren irudipean). Pertsonak frutekin ere konparatzen dira, ze balek hildako gizonen heriotza meloia bezala deskribatzen da (“Gizonak meloi leuna/ bezala dira hautsi”).

Alderantziz ere gerta daiteke, hots, natura “pertsonekin” konparatzea. Lorearen “garbitasuna” neska batekin erkatzen da (*Urdin eta*

burni); ez hori bakarrik, pertsonekin ordez, Jainkoarekin ere erka dattieke ("Itsasoa Jainkoaren gisakoa da" (*Hitzak ebakitzean*).

e) "Gaua" eta "olatu" animaliekin konparatuta.

Gaua "zapo" moduan agertzen zaigu (*Urdin eta burni*); olatu, zaldi harro eta erotiko bezala, harrien gainean etzaten den uhin bezala (*Hitzak ebakitzean*). Mujikaren poesi-liburuetan oso ohikoa bilakatzen da bizia ibaiarekin eta iturriarekin konparatzea. "Nire bizitza/ ..., nola ibarra ta hibaia/...halan dihoakit" (*Hitzak ebakitzean*), "Bizia dut barnean, / .../ bizia hibai ontzera/ doakit joria..." (*Barren ibarrak*). Eta bizi hori heriotzara bideratzen da, hibaia itsasora bezala. Bizia hibaiarekin konparatzea, bada, aski normala da, itsasoa heriotzaren sinbolo delarik "Gizona, hibai luze gisan,/ betiro herio-itsasoruntz doa" (*Barren ibarrak*). Kutxiloen aipamena ere oso garrantzitsua bilakatzen da heriotzaren presentzia adierazteko; adibideak ugariak ditugu: "Zubipean korkoin bi/kutxilo iduri,/.../ euskaldun bat hil dute...", "Zazpi kutxilo beltz hoska/ irrintziak bailiran" (*Barren ibarrak*). Bestalde "metalezko far gaiztoa" esaten denean ondoren gertatuko den heriotzaren presagioa azaltzen da, tiroak adierazi nahi direlarik. Tiro horiek "mikatzak" dira, mingarriak, limoi gordina bezala: "...Metalezko far gaiztoa/ limoi gordin iduri" (*Hitzak eta kezkek*).

Limoiairen aipamen gehiago egiten da oraindik: "Lurra.../.../ bere usaina/ limoi gordin irudi" (*Hitzak eta kezkek*), "Kitarraren arnasa/ gaitz, desatsegin/ limoi iduri..." (*Arnas gaiztoa*). Hemendik kitarraren arnasa (soinua) limoia bezala... Kantuen tristura eta mina adierazteko beste liburu batean hurrengo esaten zaigu: "Gitarren kexa/ ezpatak bezala, / hauskor,/ mehea/...". Bi kasuek Iparragirreri erreferentzia egiten diote; kexua ez da kitarrarena, Iparragirrerena baizik (*Hitzak ebakitzean*). Bertan pertsonifikazio bat atzematen dugu, kitarrari sentimenduak eta arnasa erantsi baitzaizkio; baita metonimia ere, instrumentu bat (kitarra) pertsona baten ordez (Iparragirreren partez) azalduz.

Orain arte konparaketen sailkapena egin dugu; ezin dugu esan bertan denak daudenik, baina denak aipatzea zabalegia litzateke; gainera, beste batzuk, metaforekin nahasita edo agertzen dira. Adibidez: "...Beste herri bat dabil/ hemen eginaz gora/ zezen mindua bailitzan" (*Hitzak eta kezkek*). Testu honetan adierazi nahi zaigu Euskal Herrian

jendea borrokan ari dela, herriak identitatea gal ez dezan, eta jende horren indarra eta gogoia adierazteko zezenaren irudira jotzen du, eta beste olerki askotan sinbolo berdintsuak. "Esan, herria/.../ zezen horiek zainetan/ nork erein dizkizu?" (*Hitzak eta kezak*).

## II. 2. Pertsonifikazioak

Hiru zati egingo ditugu atal honetan.

### 1) *Zatia: Naturari eta elementu bizigabeei pertsonen ekintzak aplikatzea*

Kasu honetako adibideak ugariak dira; naturako elementuei pertsonen tratamenduak egotzen zaizkie ("Erdal eguzkia euskal lurra zigortzen ari da", "Erreka zumar besoak ikutzeko asmoz", "Zumarrak karraxiz", "Mendiak pagoetan oska", "Aritza lurean etzanda" (*Urdin eta burni*). "Tamarindoen negarra", "Harkaitzak, hatzamarka biziki/nire parajea...", "Ilargiak arraskatu du", "Olatuak zaplaztekoa arrantzalearen kainaberari", "Olatua harrien gainean etzaten da", "Zeruko izarrek, planetak eta itsasoak/ etor daitezela/ amari esku ematera", "Harriaren algara" (*Hitzak ebakitzean*). Harriek eta lizarrek autorearen galderari erantzuten diote: "Harriei, lizarrei/ gaur diet galde egin", / "Zabaldu begiak/ edonondik dabil"/ —erantzun didate—, "Herri hartan harriak garraisi,/ta oihu", "Ilargiak begietan/ malko horizko jario", "Adarrak garraisiz", "Ilargia tristeziaz/ ukitzen bere lehio", "Urak eskutan hartu ninduan" (*Hitzak eta kezak*). "Lizarra eta haltza kantari", "Arratsa.../ orrazten da", "Arratsa gorritz da jantzi", "Harri latzak belauniko" (*Barren ibarrak*), "Lizarra antsiz dabila/ kantatzen neke isila...", "Ilargiak hotz zeukan" (*Arnas gaiztoa*).

Frutei ere egotzen zaizkie pertsonen tasunak: "Limoiek eta urki berdeek kopla bat zutik, harro" (*Hitzak eta kezak*), "Limoiazen farrak" (*Barren ibarrak*). Ohikoa gertatzen da, baita ere, heriotza pertsona bezala tratatzea, eta giza ekintzak aplikatzea: "...Heriotza dantzan", "Heriotzak harrapatu zuen" (*Hitzak eta kezak*), "Herioak itsasoa, ozeanoa/ bizaren esperma ta hats osoa, bere basoan darama...", "...Herioa/ afaltzen dabil..." (*Barren ibarrak*). Prosopopeia aplikatzen zaie kutxiloei eta gerrako tresnei: "Puñalak dantzan", "Fusilen

farra", "Zazpi kutxilo beltz hoska", "Laban luzeen algarak", "Lope-ri bost kutxiloek/ keinu dagiote".

Eta, azkenik, galderen pertsonifikazioa: "Galdera alferrezkoak hatzazalez heltzen niri" (*Hitzak ebakitzean*), "Mila galdera.../...dantzan" (*Arnas gaiztoa*). Ez dugu ahaztu behar "orain" eta "geroa" arteko elkarrizketa "Geroan" deituriko olerkian:

"Aldia suz bete zen,  
oraina suz bete,  
orain zaila geroan  
amildu...noiz arte?  
Geldi zion orainak,  
geroak "ez", orde...  
.....

2) *Zatia: Naturari eta elementu bizigabeei pertsonen sentimenduak aplikatzea*

Pertsonentzat bakarrik erabili ohi diren kalifikatiboak beste elementuei eransten zaizkie. Lehen bezala, izadiaren edo naturaren elementuez hasiko gara: "Arratik goiduran antsia", "Arkaitza zeruen gosean", "Arbola ergel" (*Urdin eta burni*), "Arratsaren nekea", "Itzal mozkorra", "Lur alargun", "Lur tristea", "Itzal krudel", "Ilargiak agoni", "Zelaiaren nagia" (*Hitzak ebakitzean*). "Baso nagitsua", "Arrats zaharraren nekea", "Izar tontoa", "Bide zaharraren nekea", "Artabizarrek lots", "Adar iharrek poz-eza", "Haritzen dolorea", "Lizar makur lotsatuek", ".../lila lore, behi, abere/ tristeziatz belauniko", "Lizarraren begi hotzak/ dolorez dira etzan" (*Barren ibarrak*), "Eguzkia dolorez", "ilargia tristeiz", "Gauaren dolorea", "Lizar eta zumar tristeak" (*Arnas gaiztoa*).

Eta gero altzairuaren, kutxiloaren eta herriaren sentimenduak: "Altzairuaren amorroa" ("Hitzak eta kezak"), "Kutxiloak amorega gauari" (*Barren ibarrak*), "Herri ez konforme hau/ agoniz dabila" (*Arnas gaiztoa*).

Kasu gehienetan zuhaitzei eta paisajeari egiten zaie erreferentzia, pertsonen ekintzak eta sentimenduak erantsiz; horregatik esan dezakegu poeta aldameneko paisajearekin identifikatzen dela, eta bere sentimenduak bertan isladatzen direla.

- 3) *Zatia*: Bizigabeko gauzei edo elementu abstraktuei pertsonen gorputzeko atalak (elementu somatikoak) eranstea.
- a) *Besoak*: "Zumar besoak" (*Urdin eta burni*), "Ordu luzeen besoetan" (*Hitzak ebakitzean*).
- b) *Begiak*: "Uren begi beltza" (*Hitzak eta kezak*), "Arratsaren begiak", "Lizarraren begiak makur", "Ikatz amorratuen begiek" (*Barren ibarrak*).
- c) *Gerria*: "Zumeen gerria" (*Hitzak eta kezak*), "Haritzaren gerria" (*Hitzak ebakitzean*), "Itsasoaren gerria" (*Arnas gaiztoa*).
- d) *Sabela*: "Negu sabelean", "Gauaren sabelean" (*Hitzak ebakitzean*), "Lurrak sabel gogorra", "Uren sabel beltza" (*Hitzak eta kezak*), "Lur beltzaren/ sabel beltza..." (*Arnas gaiztoa*).
- e) *Hortzak eta haginak*: "Asperrak hotzak kanpora zituen", "Existenziak, bere aginkadaz..." (*Hitzak ebakitzean*), "Fusilaren hortzak", "Haizkoraren hortza", "Harkaitz beltz baten hortzetan" (*Barren ibarrak*), "Tankeen haginak", "Fusilaren hortz..." (*Arnas gaiztoa*).
- f) *Titiak*: "Desiraren bular gordinak" (*Hitzak ebakitzean*), "Zumearen ditia...", "Ilargiaren ditiak" (*Arnas gaiztoa*), "Lizarraren diti..." (*Barren ibarrak*).
- g) *Hatzamarrak eta hatzazalak*: "Kazkabarraren hatzazalak", "Egungotasunaren hatzamarra", "Huntzaren hatzazala", "Eurria eta existentziaren hatzaparrak" (*Hitzak ebakitzean*), "Metalaren hazkazala" (*Hitzak eta kezak*), "Anisaren azkazalak/ valtsean salto ugari" (*Barren ibarrak*).
- h) *Arnasa*: "Pinuak hats gazi", "Lurrak hatsa gazia du", "Espainiak ahotik arnas..." (*Hitzak eta kezak*), "Ardoaren hats..." (*Barren ibarrak*), "Kitarraren arnasa" (*Arnas gaiztoa*).
- i) *Gorputza eta soina*: "Objetuen soina", "naturaren soin guztia", "Bertsoaren soina", "Izadiaren soina", "Lurraren gorputza" (*Hitzak ebakitzean*), "Sagarraren soinak..." (*Barren ibarrak*).
- j) *Odola eta zainak*: "Udazkenak zenbat odol", "Arrats honen zainak" (*Hitzak eta kezak*).



- k) *Izterrak, ezpainak eta beste*: “Arratsaren izter...” (*Barren ibarrak*), “Espaloiairen ezpain gorrian “ (*Hitzak eta kezak*), “Euskal Herriko zilborra” (*Hitzak ebakitzean*).

### II.3 Deshumanizazio eta desjainkotzeak.

Jainkoa gizonen tasunekin azaltzea, hots, gizon bat bezala aurkeztea desjainkotzea litzateke. Adibide gehienak, *Urdin eta burni* liburuan aurkitzen dira. “Kristoren gizatasunaz” ihardutean garbi ikusten da “gizatasun” hitza Jainkoari atxikitzen zaiola. *Hitzak ebakitzean* liburuan beste adibide berezia aurkitzen da: “...Jainko kreatzailea/ ari zen dantza eta jolas”. Jainkoa edozein gizon bailitzan dantzan iksuten dugu. Irudi arrotza ulermenarentzat, ez baitugu behin ere pentsatu Jainkoak hori egin dezakeenik. Aldaketa berdinak pertsonekin —gauza abstraktuen eremuan ere—: “Zu, Jainko Jauna,/ etzera zeru altu/ —argi izpi antzu— / ikuspen humil baina”.

Pasa gaitezen deshumanizazioetara. Deshumanizazioa pertsona bati giza tasunak kentzea da, eta, aldiz, gauza bizigabe eta naturako elementuen tasunak egozte.

- a) *Paisajearenak*: “Ni lurra nintzen”, “Ama, ama,/.../ zumar beltz,/ haritz,fago...” (*Hitzak ebakitzean*) “Ekaitza, bolkana nintzen” (*Hitzak eta kezak*), “Noiztik soinean hibaia/ zuk hain sakon ta hain sendo” (*Barren ibarrak*), “Gure haragia,/ ze lur beltz-bikaina...” (*Arnas gaiztoa*).
- b) *Botanikoak*: “Non da soin horren baso?”, “...Ageda gurea,/ “Kataniko lilia”, “Ditien lore estalia”, “Zuretzat nere liliak” (bularrak), “Sabelpeko lorea”, “Begia anpolai”, “Basoa naizen...”, “Hemen nauzu ikusnahi/ aran beltza dardarrez/ adarren ernai”, “Aranak iledian” (*Barren ibarrak*), “Neskatzaren bular-sagarra”, “Ama,/iturri azkenik ez duena/ uda oparo, hori, frutaduna/ -arto, gari/mahats opari/...” (*Hitzak eta kezak*), “Aran beltza zinan, /gerri horren ertza/...goza al baneza” (*Arnas gaiztoa*).
- c) *Animalienak*: “Bildotsa hil zuten.../.../ gazte bat asfalto hotzean”. Xabi Etxebarrieta hiltzean “basurdea hil dute” dio poetak.: “Lehen Xabi basurdea zen/ orain, ordea, idi”. Bide berdinetik: “Gartzelan orain xoria” (Etxahun) (*Hitzak ebakitzean*), “Lehoi zatar, trigre beltzak/ zartaka dabiltz gure herri” (*Euskal Herria*).

mehatxatzen duten etsaiak adieraziz) (*Barren ibarrak*), “Guretan langilea/ gosetezko zekor”, “Lope.../ lehen basurde zaila zinen./ gaur bildots...” (*Arnas gaiztoa*).

- d) *Gela eta ohearenak*: “Sar nadin barnera. Gal nadin/ nere gelatan” (*Barren ibarrak*), “...Balak uxarka/ gorputzen ohean” (*Arnas gaiztoa*).
- e) *Sua eta metalarenak*: “Sua, kobrea, ta egarria/ zara, maitea” (*Hitzak ebakitzean*).
- f) *Kristalarena*: “Bere begiak kristal / hotz-gordin” (*Barren ibarrak*).

## II. 4 Sinestesiak

Ez da gauza erraza sinestesia definizio zehatz baten bidez zer den esatea, baina adibideen bidez argiago ikusiko dugu. Nik “gorri gogorra” esaten badut sinestesia egiten dut, “gorria” ikusi egiten baita —ta aldamenean jarri diodan kalifikatiboa ez da begien bidez nabaritzen, eskuen bidez baizik—. Sinestesia sentsazioen transposizioa da, soin-zentzu zehatz bati dagokiona beste bati egoztea. Mujikaren poesian sinestesi-jokoak oso nabarrak dira. Hona kasu zenbait:

- a) *Ikusmena-entzumena, entzumena-ikusmena*: “Par gorrizko”, “Algara zikin”, “Zaunka beltz-horia”, “Oyu beltz-moreak”, “Salmu illunean” (*Urdin eta burni*). “Beleak / kroa zikin...”, “Zaunka... zuriak”, “Hots beltzek”, “Txarolezko ahotsa, / portzelanazko koplak”, “Poema metalikoak”, “Farra zuri-berdea”, “Kanta horiak” (*Hitzak ebakitzean*). “Zaunka horiaz”, “Kantua txarolezko”, “Arnas beltz”, “Xori lotuak kantua/ triste eta horia”, “...Ahoan bertso okre-horien...”, “Koplazko koplak beltz hau” (*Hitzak eta kezak*). “Negar berdea”, “Far berdetan”, “Marmolezko algaretan”, “Margo ozenak” (*Barren ibarrak*). “Aranak farre more”, “Sufrezko garra-sia”, “Odol isila”, “Far gorri”, “Hots gorri” (*Arnas gaiztoa*).
- b) *Ikusmena-ukimena, ukimena-ikusmena*: “Urdin illun,/oztua”, “Zeru zorrotzen”, “Udaberri legunean”, “Sugar gogorrez”, “Begi beroak” (*Urdin eta burni*). “Hilargi hotzaren distira ebakian”, “Itsas bazterraren linea leun”, “Kolare bero” (*Hitzak ebakitzean*). “Laban lohi, / hotz-zuri”, “Pinu hotz”, “Ilargiak keinu hotz”, “Begi hotzak” (*Barren ibarrak*). “Begietan ametsa/ hotza”, “Okre hotzak”, “Ilunpe busti-krudelek” (*Arnas gaiztoa*).

- c) *Ikusmena-dastamena, dastamena-ikusmena*: “Zeruen mikatza”, “Arkaitza mikatza”, “Arkaitz-horriak gordin”, “eguzki pas-tatsuaz” (*Urdin eta burni*). “Laban kirats”, “Pinu mordo mikatzak”, “Izar gordinak”, “Hilargi gazia”, “Urdin garratza”, “Mar-go gordinen gorrotoa” (*Hitzak ebakitzean*). “Bizia herio baino gaziago”, “Nire bizia mikatz”, “Bular gozoen...”, “Gau garratz” (*Hitzak eta kezkek*). “Gau hotz gordina”, “...Zauria/...ze garratz neri”, “Begiok daude gazi” (*Barren ibarrak*). “Ilargiak kutxi-loa/...gazia”, “Itzal gazi”, “Odol zailaren gorria/ osoro sumingazi” (*Arnas gaiztoa*).
- d) *Entzumena-ukimena, ukimena-entzumena*: “Soñuz ukituta”, “Makalen parra” (*Urdin eta burni*). “Harrizko euskara”, “Blu leunak”, “Musika bustiak”, “Zaunka hotzak”, “Gitarraren kexa/.../ mehea, / zorrotz”, “Kopla beroa”, “Irrintzi hotz” (*Hitzak ebakitzean*). “Algara hotza”, “Farra duzu freskoa” (*Hitzak eta kezkek*). “Kopla beroz”, “Negar hotzetan” (*Barren ibarrak*). “Bere bertsoak bero” (*Arnas gaiztoa*).
- e) *Usaimena-entzumena (ukimena)*. “Usain metalikoak” (*Hitzak eta kezkek*).
- f) *Usaimena-ukimena*: “Usai bero” (*Hitzak eta kezkek*).
- g) *Dastamena-ukimena*: “Aogozo guri”, “Penaren mikatzez, / arantzaren garratzez” (*Urdin eta burni*). “Ozpin hotzak” (*Barren ibarrak*). “Hotzaren orratz garratza” (*Hitzak eta kezkek*).
- h) *Usaimena-dastamena*: “Usaina/.../ bai gordina”, “usain mikatza”, “Usaina nik gaziegi” (*Barren ibarrak*). “Herriak usaina/ gazi eta haserre”, “Gerra honen usaina, /...gazi” (*Arnas gaiztoa*). “Usain gozoa” (*Urdin eta burni*).
- i) *Entzumena dastamena*: “Kopla ta ritmoa/ osoro gozoa” (*Hitzak ebakitzean*). “Euskara mikatza”, “Egia gazia”, “Irrintzi...mikatz”, “Bertsoari orain doinu/ Hotz -gazia dario” (*Hitzak eta kezkek*). “Kopla gazi”, “Hats gozoz...” (*Barren ibarrak*). “Bertso horiek gaziegi...”, “Naturak damait hizketa/ (...gozo,...)”, “...Hitzaldia/ gordina da ta garratz”, “Hots gordin” (*Arnas gaiztoa*).
- j) *Usaimena-ikusmena*: “Bere betarteak/ usain kolorea” (*Hitzak ebakitzean*) (*ikusmena-usaimena*). “Usain berde”, “Usain beltz-berdetan” (*Barren ibarrak*).

- k) *Entzumena-ikusmena-dastamena*: “Arnas gorri-gazi”, “Irri hotz-zuri” (*Hitzak eta kezkak*).. “Iparragirrek koplak / hori-beltz-gazia” (*Arnas gaiztoa*).
- l) *Entzumena-usaimena-ikusmena*: “Otsoaren zaunkak usain/..., more, hori” (*Hitzak eta kezkak*)
- ll) *Entzumena-usaimena-ukimena*: “Suaren hotsa ta usaina gogorra” (*Hitzak ebakitzean*)
- m) *Ikusmena-ukimena-dastamena*: “Nire emaztearen eta kotxearen gorria/ gogorra da ere, gordina” (*Hitzak ebakitzean*)

Bada oraindik beste sinestesiarik, baina gehiegi litzateke kasu guztien sailkapena ematea; aipatu bakarrik egingen ditugu batzuk: “Urdin neskatx” (*Urdin eta burni*), “Pena berdetan”, “Pena gazi”, “Gorri aserreak”, “Lo berdezko olatuak”, “Pena gorri”, “Tristura gazi” (*Barren ibarrak*).

Beste fenomeno bat ere gertatzen da poesia hauetan, gorputzeko atalen funtzioak aldatu egiten direla. Ez dugu uste, hala ere, fenomeno hori sinestesien barruan sartu behar denik, baina bai, nolabait, metaforen saillean... Batzuetan begiei ahoaren edo hortzen funtzioa ematen zaie: “Begiengosea hozka” (*Hitzak eta kezkak*), “Begiok hortz gogor dira” (*Barren ibarrak*). “Bergia zelaian / ederra edaten” (*Urdin eta burni*). Baita ere belarrien funtzioa: “Begi gordin hoitan entzun gudari baten kantak” (*Hitzak eta kezkak*). Beste momentu batean “neskatxaren begietan/farra zuri-berdea” delakoa (*Hitzak ebakitzean*) ageri da. Kasu horretan sinestesia ere nabarmen, “farra” entzun egiten baita, eta ez da “zuri-berdea”; kromatismoa begien bidez apreziatzen dugu, ez belarrien bidez —farra bezala—. Hala eta guztiz, begietan jartzen du autoreak farra, beste organu baten funtzioa emanez.

Orobat, hatzamarrak, hatzazalak eta besoak organo desberdinen funtzioz hornituta azaltzen dira: “Orain atzaparrek ez oihera”, “Herdoilaren azkazalak/ arboletan hozkari” (*Barren ibarrak*), “Beso luzeen oihua” (*Arnas gaiztoa*). Lehenengo kasuan atzamarrek aho-kordaren funtzioa zuten, bigarrenean azkazalek hortzena, eta hirugarrenean besoek kordarena. Bigarren kasuan herdoilari pertsonen edo animalien elementu bat egozten zaio gainera, hots, “azkazala”. Eta, oraindik, beste adibide bat, alegia, hezurrena, ze hezurrek hizketan azaltzen dira: “Hezurren hizketak” (*Arnas gaiztoa*).

## II.5. Metaforak

Bi termino erlazionatzen direnean, haien arteko antza kontutan edukita, metafora lortzen da. Bi termino horien artean ez da lotura-partikulatik ematen, ordea, konparaketetan gertatzen den bezala. Tes-tuan erlazio anitz sor daiteke; adibidez, A eta B arteko nexoa; honela, "zure hortzak perlak dira" asko erabilitako metafora da. "Hortzak" termino erreala eta "perlak" irudia lotzen dira; bien artean antza natu-rala dago, hots, zuritiesunarena. Beste batzuetan, aldiz, bigarren ter-minoa bakarrik agertzen da: "Zure ahoko perlak". Kontutan eduki behar dugu erlazio hori ez dela hain garbia kasu guztietan; bien arteko lotura osoa autoreak bakarrik ikusiko du; askotan oso pertsona-la da. Hermetismo hori gertatzen zaigu, maiz, Luis Mari Mujikaren poesigintzan azaltzen diren metaforekin; oso berezi eta trebeak dira, eta ulertzeko zailak; berezitasun horrek, ordea, expresibitate handia-go ematen dio pasarte poetikoari.

Goazen poema-liburuetan azaltzen diren metaforen klasifikapenera:

### a) *Metafora instrumentalak:*

"Hitzen zizela zigor/ zaida gaur bihurtu, / Hitzak, asmoak, hatsak,/ nigan dira mailu/.../ haragian erantsi?". "Nere laban beltza-ren ziztada" (haragiaren grina adieraziz), "Naturak.../ eta sabel sakon hortan/ sartuko golde bere", "Semeok jaso, altxatu/ haizkora eta hor-tzak". Hemen borroka hasteko eskatzen dio euskaldunari; "haizkora" eta "hortzak" dira borrokaren irudiak. "Kezka batera haginena,/ hor-tzen, iltzen (al dakit?)/ mailu eta orratz zailen...".

*Puñalak eta labanak* kasu gehienetan heriotzaren presagio dira; orobat boztiztasunezko mintzoak: ".../ Labana bat balantzan/ (lurrean baledi!)". Labanak "balantzan" irudiak heriotza norbaiten gainean eroriko dela adierazten du; labanak lurrean baleude ez litzateke horre-lakorik gertatuko. Hala ere, poetaren desirak inposibleak dira, kontra-ko presagioak ugariak izaki: ".../ Puñalak ere dantzan/ makabro eta hordi...", "Hildakoen aulkian dantzari gizon bi".

Metafora instrumentalekin jarraituz, beste adibideak azaltzen dira, baina kasu bakoitzean metaforen zentzua ezberdina da —eta hori kontutan eduki behar da, askotan, gai batetik bestera salto egiten baita—. "Ah, hortzez, hatzez, hitzez,/ azkazalez dut nik/ defendituko

ohorea,/ etxea eta aberri". Hots, gorputzaz defendituko du poetak Euskal Herria, "etxea", ohorea eta euskaldun izatea. Nolabaiteko antza zati hoenak Gabriel Arestiren "Harri eta herri" liburuan azaltzen den "Nire aitaren etxea " olerkiarekin. Fusilak azaltzen dira metafora bezala beste adibide honetan: "Alferrik dabilta, bada,/ fusilak hor zutik.../ nahizta soinean senti/ fusilen orrazi, / nahizta faszist haginek/ izan guk lokarri,/ezin, etsaiek, ezin/ lotu Euskal Herri". "Fusilak zutik" esaten duenean errepresioa adierazten du; gure etsaiak gu beldu durtu nahiean dabiltzala, baina ez dute lortuko.

"Gerratearen orratza, / sufrea eta kutxiloa, / mailu gordinek laztanka, / soinean zaplazteko; / noiz, noiz arte Euskal Herriak kate gaitza du jango?" dio beste batean. Instrumendu horiek gerra dagoela adierazten digute; hala ere, irudi interesgarriagoa aportatzen du "kate gaitza du jango" imajinaz baliatzen denean.

*Ezpataren metafora* dator gero. Maitearen gorputz ederraren grina sentitzen du poetak, eta deseo hori metafora hauen bidez adierazten du: "Begien gosea hozka/ basaki bere soinan", "Aih, aih, nire ezpatak zutik, /tente haragi hortan", ".../ Desirek haragi hortan hortz dira eta laban". Dena ez da deseo bakarrik, plazerra ere lortzen da: "Zure beso, ezpain, masail / ta bularrak naute estal; haserrezko ardo bikain/ bat zurekin dut edan, / ze atsegin,.../.../ maiteak emana...! Zer, zer? / Hibai hortan nadin gal...!". Maitearen sexua itsasoa da; ze bikaina den bertan galdu eta itotzea: "... Sexo/ hori ze itsasoa dan".

*Kutxiloaren metaforismoa*: "Zergatik kutxilo hotzak/ amore gauari". Gauza gaitz baten presagioa hemen. Kutxiloak, gehienetan, gero gertatuko den heriotzaren seinale dira; kutxiloen ekintzarako une aproposena gaua da. Iluntasunean nekez ikusten dira gauzak, eta horregatik "kutxiloak amore gauari". Beste elementu tragiko bat ere azaltzen da, hots, ilargia: "Zergatik ilargiak/ odol morezko zauri./ Zauritik doakio/ pena soil, berde, gazi". Eta ilargiak zauri morea du: "Bi haritzen erdian / ilargi morea argi". Orobat, herrian dagoen amorroa adierazteko, kutxiloaren irudia erabiliko du maiz. Poetak, bestalde, bakea nahi du: "Bakearen ohera, ah,/ sar, ailega banendi!"; baina ez da posible, amorroa "gurdia" da, eta ezin da gelditu: "Amorro honen gurdia/ ezin, ezin da geldi...!".

*Labanaren metafora*, zehazki, heriotzaren presagio gisa azaltzen da: "Bidetan labanak zutik". Santa Krutz apaiza, Euskal Herriaren

sinboloa, mendira doa; bere zainetan "odol errea", gure herriarentzat libertatea lortzeko gogoa dago; halako batean, "polboraren far gorria" eta "metalezko garraisia" entzuten dira, eta apaiza lurrera erortzen da hila. Santa Krutzekin Euskal Herria ziplo altzen da. Ildo beretik oraindik: "Gaurtik gerora ozpina,/ gatza eta malenkolia/ hozkatu beharrean da/ (egitan) Euskal Herria", "Bidetan labanak zutik", "Begiak hortz gogor dira..."

Beste batean, berriz, "Hilaren hezurak/ makil iharrak dira" dio (*Barren ibarrak*). Bide berdinetik: "Nik neure Herria / hatzazalez/ —hazkazalez—/ neure kate eta zauriekin/ hatzamarrez nahi dut defenditu". Eta "Dudaren mailuak/.../ kolpeka niregan".

Instrumendu askok du, lehen ikusi dugunez, sarrera maitasunaren trataeran: "Desirak labanaz/—grinazko gauean—/ soinaren larrua/ hautsiko, agian?". (*Hitzak ebakitzean*). Gizonaren desirek, berriz, neskatzaren larrua urratzen dute. *Sentsualitatea* adierazi nahi da "labanaren" bidez. Geroagoko liburu batean ere (*Arnas gaiztoa* dela-koan) labanaren irudia: "Izua nigan/ laban hotza zan". Beste kasuetan, berriz, gorrotoa, borroka eta haien ondorioa (heriotza) sinbolizatzen dute labanek.

#### b) *Animalien metaforismoa:*

Lehendabizi animalia basatiak aipatuko ditugu: "Zure zain belatzetan, ah/ zenbat basakatu,/.../ zenbat tigre bildu,/.../... zainetan", "Uda nintzenean tigreen/ hortza, lehoien pilo/ gaiztoa barnetan nuen", "Baita nintzen pizti, lehoi,/ basakatu, arrano, / barrengo sorotan mila/ zezen zeuden larreko/ orduan euri gaitza/ afaltzen nuen bapo".

- 1) Animalien artean *zerria* ere azaltzen da, eta kasu honetan bezala zerbait nazkagarriaren modura: "...Herri zahar, zimur, harroa/ zerrien ahotan mauka/ mauka jaki gozoa...". Parisko jauntxo zitalak adierazi nahi dira "zerri" horren bidez.
- 2) *Zaldia*: "Bai Zumalakarregiren/zaldia belauniko,/liberalen soka beltzek/ lotu gaituzte preso...". Belauniko dagoen zaldia porrota da, karlisten hondamendia. Liberalek irabazten dutelako daude "lotuta" liberalen "sokarekin" euskaldunak ("Han ametsezko zaldien gurpilean").

- 3) *Zezena*: “Gorroto baten zezen/krudelak dantzari”. Zezena borrokaren metafora da, gorrotoek heriotza ekartzen dutelako. Horregatik “zeruan laban hotzak/ gorrotoz zintzilik...” heriotzaren presagio bezala. Beste adibide hurbila *odolarena*, maiz animaliei lotututa: “Etxe honetan odola/ bai, laster iturri”. Norbait hilko da, zauria handia izanen da, odola zainetatik turritik bezala aterako da. Etxeko bi semeen artean gorrotoa nabari da. Iñaki, seme zaharrena, ez da euskaldun sentitzen, “nafar” soilik bakarrik; Txomin, berriz, euskaldun petoa da, eta aitaren odola ez dela ahortzi behar gogorarazten dio anaiari. Azkenean, Iñakik anaia akabatzen du, eta honela suertatzen da gorpu Txomin: “Burua du alde batean, / bestean soin gorri, lepoa han, gorputza hemen/ ah, nolako iturri”.

Zezenaren metaforismoa Nafarroari ere aplikatzen zaio. Lehen Nafarroa “zezen harroa” zen, gaur, berriz, “idi isil mantsoa”. Bien artean kontraste handia; bata indartsua da, bestea otzan eta mendekoa. Oraingo Nafarroa idi da, hain zuzen, eta ez zezen (*Hitzak eta kezak*).

*Barren ibarrak* liburuan animaliei loturiko bi adibide azaltzen dira: *Lehoiarena* eta *zekorrarena*. *Zekorrarena*: Mutil batzuk kamioian Urbasako lezetik behera botatzeko asmotan daramatzate, eta hiltzaileek komentario hau dagite: “Zer dira? Gizonak, esan,/ ala zekor beltz-isilak/ herio hotzen bidean?”. Zekorrak hiltegi horrelaxe joaten dira, kamioi batean sartuta. Amildegiko aldapan Euskal Herria bera sinbolizatzen dute: “Euskal Herria zintzilik/ Zudaireko balkoitik”.

- 4) *Lehoia eta tigrea*: “Lehoi zatar, tigre beltzak/ zartaka dabiltz gure herri”. Animalia horiek etsaiak dira (*Barren ibarrak*). *Hitzak eba-kitzean* liburuan, berriz, *zaldiaren* metaforismoa bakarrik dago. “Olatuak zaplaztekoa arrantzalearen kainaberari/ olatua zaldi harro...”.
- 5) *Zakurra*: Herriaren etsai dira “zakurrak”, “Zakurrek egarria dute” eta egarri hori odolezkoa da, Euskal Herriko semeen odol-egarria. Euskaldunek herria askatzeko bizia ematen dute: “Zakurrek egarria/ dute t’odol nahiko...”, “Zakurrak edaten du / odolarik asko”.



- 6) *Zekorra*: Langileen egoera esplikatzen du poetak zekorraren metafora baten bitartez. "Gosetezko zekorrak" dira; justu irabazten dute bizitzeko lain; zor zaien erdia ordaintzen diete nagusiek: ".../ Lanez hamar emanak/ soldatan gero bost".

Gorrotoa adierazteko ere animaliak erabiltzen dira: "...Gorrotoak gure herria.../ tigreen piloak lepoan/ piloten gisa jolas,/ basurdeen agin bilduak/ berbihurtuta atzapar/ haizkorak eta ezpatak/ gure herriaren ardatz" (*Arnas gaiztoa*).

c) *Metaleen metaforismoa*:

"Gure poetak begitan/ metalen azkazala". Irudi honekin poeta hilda dagoela adierazten zaigu (*Hitzak eta kezak*).

- 1) *Altzairua*: "Haragitan altzairuak,/herdoil zaharrek garraisi"; "Gazte bat asfalto hotzean.../ Altzairuzko azkazalak,/ soinean balen algarak" (*Hitzak eta kezak*). "Antsi hau altzairuzkoa da" (*Barren ibarrak*).

- 2) *Burdina*: "Sabel sakonetik bota/ seme burdinezkoak". Ez diegu utzi behar etsaiei euskal kultura hiltzen. Burdina da maizenik azaltzen den metala; burdin hori lurraren barnean dago, bere esentzia da; horregatik sortzen ditu lurra seme "burdinezkoak". Burdina erabiltzen du, orobat, Nafarroaaren izaera gotorra esplikatzeko. ("Atzo amorroa, burdina" zen, "metal irakina") . Eta oraindik: "Altzairuen amorroa/ joka dabil alferrik", "Ah, esan gazteari/ burdinak jateko leiha/ nork dion, bada, jarri". Hemen mutilaren bizkortasuna azpimarratzen da. "Euskal mendien burdina/ da haragien zigorra,/ah, Somorrostron burdina gutzat fusil egiten da" Ironia gertatzen da, beraz, Euskal Herriko menditan burdinaz fusilak egitea, gero fusil hoirekin euskaldunak akatuko baitituzte (*Hitzak eta kezak*). "Burdinezko zeruan..." (*Hitzak ebakitzean*).

- 3) *Kobalto eta kobrea*: "Kobaltozko zeruan/ putreak jirabiran". Norbait hiltzera doa, putreak animalia nazkagarri moduan hilen atzetik dabilta. Horrela gertatzen da, azkenean, Iturriozko ostatuan aita "husturik" suertatzen dela. "Seme bat haizkoraz/ aitari zazpi laztan", (*Barren ibarrak*). Eta, bestalde, "Izter kobrezko"

(*Hitzak ebakitzean*) delakoa ageri da pasarte sentsual baten ildoan.

d) *Metafora kromatikoak:*

Koloreen esanahia parrafo honetan garbi azaltzen da: “Horra margoak: okrea, / beltza, horia.../ gizonak girade, beraz,/ kolore horien iduri” (Barren ibarrak). “Gorria/ (Bizi honetan/ goza). Morea/ (Herriaren/hotza). /Berdea / (Amets baten/hutsa). / Horia/ (Azkenaren/hatsa)” (*Hitzak ebakitzean*).

- 1) *Morea*: “Ah, morezko moredura hau/ nere bihotzaren jabe!” tristuraren enfasia errepiken bidez eginez (*Hitzak eta kezak*). Beste olerki batean pena eta tristura “more” koloreaz kalifikatzen dira: “Istantea more, more/.../ pena more zen” (*Arnas gaiztoa*).
- 2) *Gorria*: “Iturria nolatan da hain gorri”. Xabi Etxebarrieta zauritu egin dute; zauritik odola erruz ateratzen zaio, eta horregatik zauria “iturri” izendatzea. Iturria gorria da. Badugu boraindik beste metafora-mota Xabi deskribatzerakoan: “Basurde beltza orain da zauri”,. Beraz, Xabi Etxebarrietaz hitzegitean *basurdearen* irudia erabiltzen du Mujikak, eta mutil hori “dena da zauri”. Horrela zauriaren garrantzia azpimarratzen da. Mutila lehen indartsu, basati...zen, orain berriz *zauri* besterik ez. “Lehengo burdinak ez dira hain burdin”, “Basurdearen hortzak mutu-isil”. Eta ez hori bakarrik, zauriaren zuloa gero eta handiagoa egiten ari da (“Zuloa hain handi nork dio itzuli”) (*Hitzak eta kezak*). Hurrengo kasuan ere *odola* eta *gorria* elkartuta: hiltzaileak lau pertsona hil ditu, eta haien odola sentitzen da edonon, gaua ere “gorriz” ase delarik. Grinek gizona menderatu dute, eta ondorioz gertatu da egin dena; hemendik aurrera “odola” izanen da jabe, “odol mada-rikatuak” grina adierazten dute. Odolez zikinduta dago gizona (“Ukitu ta sentitu hire/ esku, behatz, beso, kopet,/.../ odoletan zeudek heze”). Hainbeste odol duen putzuan ere igelek “odol gorria zurrut” (*Barren ibarrak*). Ikusten denez, “gorri” koloreaz mina, dolorea adierazten da nagusiki (“Mina gorri, gorri”).

e) *Metafora somatikoak:*

Ia galdurik zegoen euskara “hezur zuri zimela” zen, baina, mirari bat gertatu bailitzan, berpiztu egin da (“Zainez, nerbioz eta/.../ hara-

giaren berdez/ berriz estali da!"). "Berde" horrek zuhaitzen berpiztea gogoratzen du, berdez "janzten" den udaberria, biziaren sinbolo bezala. Lehena eta orainaren arteko kontraposizioarekin jarraituz, poetak dio euskara "tresna ihar/xahar, zatar,/ nabal, hutsal zana,/ orain neskatxa gordin/ (ta lirain) egin da". Egun euskara "haragi" da, betetasunaren irudi; herdoila, aldiz, higaduraren metafora: "Ez sits, ez gaitz, ez herdoil,/ ez hezur... euskara/ osoro berdeturik...". Euskararen berpiztea garrantzitsua da, herri baten bizia delako: "Euskara, euskara, hi haiz/ herri honen hatsa!" (*Hitzak eta kezak*). Eta, bestaldetik ".../ Fusil latzek bularjorran" ageri dira. Goldearen hortzak soro-jorran bezala, fusilek bularrak zulatzen dabilta (*Barren ibarrak*).

Lurrean datzaten hilak honela aurkezten dira: "Buru eta izter hautsiak/ lurrean daude etzan". Beste batean borreroak biktimari eskuak, begiak, besoak, e.a., "kendu" dizkiola esaten da; torturatuak ia ezin du ezer egin, baina hala ere hitzak geratzen zaizkio ahoan, eta haiek ere erauztean oraindik ideiak, kexuak eta desirak espresa ditza-ke. Azkenik, denak kentzean "gogoa" eta "asmoak" zaizkio propio. Ondorioz poeta bera da inportanteena, ze "librea" da "zigor guztien gaindik!!!" (*Arnas gaiztoa*). "Asperraren behatz lohi latzak/ hatzamar-ka ninduen". Asperra iritsi da beregana, "egunaren egunerokotasunak" likido batek bezala "busti" du, eta bere jabe egin (*Hitzak ebakitzean*).

### f) Suaren metaforismoa:

"Herria, nere herria, /sua jan al duzu?". Azpimarratzekoa da irudi honen indarra. Kasu batean "arrats gorriak/ suzko sukarrak/ behatzen zuan..." dio poetak; arratsa neska irrikatzen duen galaia da, eta neska- ren begizatzea "suzko sukarrez" egiten da. "Haurraren sehaskan du/ sugaiztoak habi/ (suzko sugeak, aih,aih,/itzaltzen ez daki!)". Sua ere gorrotoaren metafora da (*Hitzak eta kezak*).

Gizona triste dabil, barnea iluntasunez betea dauka; halako batean Jainkoa azaltzen zaio, aspalditik bere bila dabilela adieraziz: "Badakit, ene! atzetik zenbilen.../ Zu joka, kolpe eta kolpe, / Baina ni ilunean hilda". Orduan konturatzen da gizona Jainkoa zela berak behar zuen argia, ze fedea "itzalita" zeukan. "Zu, zu esperoz zindudan? eta nik sua itzalia" (*Barren ibarrak*).

Amodiozko olerkietan ere “sua” da irudi nabarmena. Maitearen “bi bularren piloan/ su mozkorra dantzari...”, pasioa eta sentsualitatea adieraziz (*Barren ibarrak*). Maitasunaren intentsitatea ezin du inor ematu, sua eta olatuaren gisakoa baita: “.../Amodio honen sua/ ta bere olatua/ zenbatekoa dan”. Maitearen deskribapena suaren bidez egiten du: “Sua, kobrea, ta egarria/ zara, maitea” (*Hitzak ebakitzean*). Bestalde “Semeak sua jaten” ari dira; beraz, gerran daude eta sua da haien “eguneroko” ogia. Baita ere “Suzko euri garratza” delakoaren irudia... (*Arnas gaiztoa*).

*g) Odolaren metaforismoa:*

Lehen, kolore *gorriaz* aritu gara zerbait. Orain beste pasarte poetikoak ekarriko ditugu. Euskaldunek Euskal Herria defenditu behar dute; borrokan hasten dira jauntxoek kontra; gazte asko hiltzen da borrokan: “Botaka latz odola”, “Odol hoiien euripean/ euskal haziok (benetan!)/ ditzagun busti,/ beraren gorritz/ betikoz jantzi gaitean!”. Oso irudi polita da hemen azaltzen dena: mutila odol asko galtzen ari da eta odola “euripea” da, “euri” horren oldeaz (mutilaren heriotzaz) salba dadin herria. Euskal Herrian askatasunaren “hazia” landatu behar da; “euriaz” haziko da bera (*Hitzak eta kezkek*). Horregatik espresatzen du “Lauaxeta eta Lorca/.../ biek barrengo odol prestu”.

“Odol pitzatuen hotsak” metaforapean ere hildakoen aipamena, baina metafora hori, gehienetan, beste era batera erabiltzen da, hau da indarra eta grina adierazteko —eta, kontraposizio bezala, monotonia eta indar-falta agirian jartzeko—: “(.../Lehengo odol latzen hotsa/ euri isil bakarrik,/ah, euria berriro/ odol latz baledi)”. (*Hitzak eta kezkek*). Orain arte garrantzi handia amodiozko olerkiek poetaren obran; horregatik ez da harritzekoa “odola”ren zentzu berezia eremu horretan azaltzea: “Zainen bero mozkorra/ nola epel daiteke?”. Mutila hirrikaz beterik dago, eta odolak irakiten du zainetan, “odola bor-bor” dago. Onomatopeia hemen adierazkorra da, eta desirak ezin dira “epeldu” (*Hitzak eta kezkek*).

Kasu batzuetan odolak konnotazio txarra du; adibidez, hurrengoan: “Horra lizarra/ odolez janda”. Lizarra hemen poetaren zuhaitz mateena bezala ageri da, eta arbolak odol koloreko orbeletan berdetsuna galdua du (“...Berdetzen baleki/ inoiz ez hiltzen ikasi” (*Barren ibarrak*)).

### h) Ardoaren metaforismoa:

Poemetan, maiz, "ardoa" indar giro bati erantsia azalduko zaigu: "Hire odol ardo beltzen/ kaskada gaizto-hautsi". Odola bizkortasunaren irudi da. "Ardo harro-gaiztoak". Gaztetan edukitzen ditugu "ardoak", baina behin zahartzaroaren "negua" iristen denean, "ardo" horiek "ur" bihurtzen dira, ahultasuna azaltzen da gure pertsonarengan ("Gaur dirade ur isil").

Gaztaroko indarra eta bizkortasuna beste era batean ere adierazten zaigu. "Piztien begi gaitzak" zahartzaroan "sagar ustel" bihurtzen dira. Bizia aurrera doa, eta poetak bizia berrasi nahi luke ("Negu okre hau/ uda nola itzuli!"). Baina hori ez da posible; "negua" sinbolizatzen duen zahartzaroa ezin da inolaz ere gaztaro bihurtu, hots, "uda" bihurtu (*Hitzak eta kezkak*).

Amodiozko olerkietan adibide hauek: "Zure haragitan ardo/ harroen sua, bolkan/ basatien gaitza...". Maitearen gorputza pasioz beteta dago, sentsualitatez lehertzen da; neskatxaren begiek "mozkortu" egin bide dute: "Begi hoi en ardo/ zein gozo ta zein bete" (*Hitzak eta kezkak*). Gainera, gizona "ardozko desiretan" dago, grinak mozkorrak, geldiezinak direla (*Barren ibarrak*).

Hirugarren kasuan "ardoa" heriotzarekin elkartua agertzen da: "Herioa ardo sumina/ ni inguratu nahiean" (*Hitzak eta kezkak*).

### i) Metafora paisajistikoak:

Elementu asko sartzen da paisajearen barruan; paisajismoa da —barne kontzientzia estetikoaren adierazpen nagusi bezala— Mujika poetak gehienik, behar bada, garatzen duen motibo poetikoa. Hemen metafora banaka batzuk aztertuko ditugu.

1) *Frutak eta zuhaitzak*: "Sagar ustelak arbolan/ gezur makabro irudi". Sagarrak uda zaharraren mamuak dira, gezur makabroaren antza daukate (*Hitzak eta kezkak*). Beste olerki batean une garratzak seinalatzen dizkigu fruta bati loturiko irudiak: "Orduen limoi gaziok" (*Arnas gaiztoa*).

"Gorrotoek ozpina/ basaranen pare". Gorrotoa mikatza da (*Hitzak eta kezkak*). Eta zuhaitzak: "Zenbat urki ihar, xahar, makal/ barnetan ni jo ta jo" (*Hitzak eta kezkak*) ".../ Pinu mordo mikatzak, / haritz zauri berdoxtak-arte ihar moreak-./ desesperaziozko galderak". "Za-

lantzak zutik daude” eta ez dago libertaderik. “Sasitik irten den be-leak/.../ nire kateen barre dagiena...”. Zuhaitz bakoitza autoreari zentzu bereziz azaltzen zaio: “Haritza/ (gure/bizitza) / Fagoa/ (grinaz/ itoa)/.../ Zipresa/ (atzo/hil zena)”.

Amodiozko olerkiak ere kasu honetan nabari dira. Edurneren gorputza deskribatzen da elementu begetatiboz: “Zure gorputza/ limoi arbola”, “Ah,ah,Edurne/ zure gorputza/ lizar zuhaitza...”. Tipologia honetako metaforak, noski, aski sentsualak dira (*Hitzak ebakitzean*). Eta berriro *haritza Arnas gaiztoa* liburuan; nahiz-eta oraingo errealtatea gerra izan, esperantzak badu bere gunea oraindik: “Haritzaren adarrak/sendo eta berde”. Gero, zuhaitzaren berpiztean, Euskal Herriaren esperantza isladatuko da, gerra ondorengo libertatea (*Arnas gaiztoa*).

2) *Ura eta iturria*: “Gazte hautsiak nolako ur,/ ur gogorra barne-tik,/ur hori odol zaila da, /eta urak ez azkenik...”. “Gazte hautsi” irudiak hil mutila adierazten du. Odola atera ohi da zauritetatik, baina poeta “uraz” mintzo da, ur-jasaren antzera jasa egiten duen odolak haziak bustiko baititu.

Euskal Herria orain “idi makala” baino ez da, besteen menpe dago, besteentzat lan egiten du, baina Xabi Etxebarrietaren odolak konzientzia esnatzeko balioko du, gure Herria “zezen indartsu” bihurtuko du: “Nire odolez altxa duk/ herri isil hau lurretik”. Xabik askatasunaren hazia bere odolaz “ureztatzen” du. “Lehen Xabi basurdea zen/ orain, ordea, idi,/ baina laster gure idia/ berbihurtuko pizti”. Libertatearen hazia heriotzaz aldatuko du (*Hitzak eta kezka*). Orobat, “Ura odolez gorri/ .../ euskaldun bat hil dute,/ zurruta ze gorri/. Ur horrek, eta Kurtsaleko zubiak, Euskal Herria sinbolizatzen du; euskalduna hiltzean lurra odolez makulatzen da (*Barren ibarrak*)..

“Ni igeri/ zure haragitan oro/.../ Begira uren isuria/ egarri hau asetzeko”; maitearen gorputza hibaia bezalakoa da, “ur” horretaz gizonaren desira edo “egarria”asetzen da (*Barren ibarrak*). Beste kasu batean “ura” poetaren barrunbea da (“Sartu naiz nire uretan/ sako-neko ur beltzetan”) (*Hitzak ebakitzean*).

Gehienetan “iturria” odola erruz eteratzen den zauriaren metafora da: “Sahietsean odolak/ egina du iturri...”. Odola askatasunaren hazi izango da: “Gaztearen zipiztin/ beroak, hain gorri.../.../ askatasun

hazi" (*Hitzak eta kezak*). Gazteari tiroak bota dizkiote, eta bi zulo egin; bi zulo horiek bi "iturri" dira eta iturri horiek ez dute ura botatzen, odola baizik: "Zulo, bi odol-iturri...", "Nork jarri dio soinean/iturria gazteari?" (*Barren ibarrak*), ".../Asmo txarrak Nafarroan/itzultzen iturgorri" (*Arnas gaiztoa*).

Orain arte "iturria" zauriaren irudi bezala ikusi dugu, baina hurrengoan beste zentzua hartuko du, jatorriarena. "Zer duk bertso hori?/.../ Ah, herri/ gauzen iturri". Bertsoak poetarentzat gauza garrantzitsuak esateko medio dira, haietatik ateratzen dira gauza guztiak (*Hitzak eta kezak*).

Bestaldetik, poetak izugarritzko dolorea sentitzen du, iturria bezala etengabe isurtzen ari den samina: "Nik dolorea/ betiko iturri". Baina batzutan "iturria" begia bera da, ederraren sorgunea da: "Begiok zaizkit/ eder iturri..." . Gauza ederrak begiei esker ikusten ditugu. Edertasun asko du poetak aldamenean, eta paisajea eta izadia ederrak iruditzen zaizkio, baina gauza horiek eder "norbaitek" ikusten dituelako dira; ederrik ez da kontenplaziorik gabe. "Ederra dabiltz kreatzen/asmok, begiok, zentzunok", "Ederrik ez begi gabe". Itsu batentzat gauzak ez dira eder, daude soilik. "Gauzek boegiotan giro, /ederrik ez begi gabe/ (itsuak ederra hutsune!)" (*Barren ibarrak*). Hemen, noski, poeta naturaren kontzientzia estetikoaz ari da.

3) *Ibaia*: "Zure bularrak hibai bero bi"; "Bular gozoen hibaiaz" (*Hitzak eta kezak*), "Ardo beltzeko hibaia..." (*Hitzak ebakitzean*), "Eskuak, begiak ilunaren/hibaiez itxi, itzali zaizkio,/ ze hibai, ze ilun, ze samin...". Mutila hil da ("Odola gelditu da, gogortu") eta iluntasuna iritsi zaio (heriotza). Iluntasuna handia da; hori adierazteko "hibaiaren" irudia darabil berriz (*Hitzak eta kezak*).

"Ibaiaren" metafora beste zentzu batean ere erabiltzen da, hau da, trantsitibitatearen ildoan; gure bizia "hibaia" da, eta heriotza, berriz, "itsasoa". Metafora hau nahiko erabilia izan da literatura guztietan; Mujikak oso egokia aurkitzen du irudi hori biziaren iheskortasuna adierazteko. Ibaia beti itsasorantz doa, eta bertara iristean hil egiten da, itsasoaren zati formatzen da; gure bizia ere heriotzarantz doa eta han bukatzen da: "Gizona, hibai luze gisan, /betiro herio-itsasoruntz doa" (*Barren ibarrak*). Horregatik bere guraria: "Nolatan hibai beltza/mendiruntz itzuli", "...Ah, nire bide egina/ berbide baledi!". Orain bizitzako denboraz "bizi" nahi du, baina deseo horiez da posible "hi-

baia” ez baita mendira itzultzen (*Hitzak eta kezkak*). “Halako hibai galanta/ nork erantsi dida”, “Bizia dut barnean/ ur sakon, lodia”. Bi kasuetan bizia aipatzen da. Bizia hazia da, eta hazia odola: “Hazi hori odola,/odol zut, jeikia”. Ondorioz ateratzen da bizia odola dela, eta odolik gabe ez dagoela bizirik. Odola bestelako metafora baten bidez ere espresatzen du poetak, hots, “uraren” bidez (“Zain beltzetan datoz/ ur bero-goriak”). (-eta, orobat, “ardo”-aren metaforaz baliaturik). “Biziaren ardoa/.../ ekaitz latza zaida” (*Barren ibarrak*).

- 4) *Itsasoa eta olatuak*: Maitearen soina da olatua: “Soin horren olatuak...” (*Barren ibarrak*). Ugaritasuna ere azpimarratzen da: “Naturaren soin guztia/.../ olatu bat da” (*Hitzak ebakitzean*). Lehen “itsasoaren” esanahi batzuk aipatu ditugu; orain beste batzuk aurkituko ditugu. “Gauzen itsasoan nabil” (*Barren ibarrak*), “Penazko itsasoa...” (*Arnas gaiztoa*).
- 5) *Euria*: “Tristeki, tristeki” olerkitxoan euriaren bidez esistentziaren errepikapena azaltzen digu; existentzia beti berdina da euria bezala, eta horrek asperra sortzen du (*Hitzak eta kezkak*). Ugaritasuna ere espresatzen du: “Herriak kezka-euri” (*Hitzak eta kezkak*), “Kontuz, balazko euria” (*Arnas gaiztoa*).
- 6) *Putzua*: Putzua beltza da; hasieratik kolore horrek zerbait tragi-koa adierazi nahi digu. Gainera “korkoinen putzu beltzean/ ez nuke nahi nik erori”. Beste olerki batean korkoinak herioaren presagioaz azaltzen dira: “Zurriolako zubian,/ah, entzun dira tiro bi”.
- 7) *Ilargia*: Adibide zenbait aipatu dugu; oraindik baliapide gehiago daude: “Askan ilargia hartu/nahi dut.../ Eskutik ilargiak ihes dit egin” (*Hitzak eta kezkak*). Ilargia pertsona bezala agertzen da. Bera gertatzen den guztiaren testigu da, bere sentimenduak pertsonarenak dira: “Ilargiak hotz zeukan...” (*Arnas gaiztoa*).

Gertaera garratz bat agertzen denean, ilargiak “sentimenduak” espresatzen ditu, sentimendu tragikoak. Hona adibide bat: “Ilargiak begietan/malko horizko jario” (92. or.). Etxauneak ere, preso dagoenean, tristezia ilargiaren bidez isladatzen du; ilargia present poetaren egun bakartietan: “Ilargiak tristeziaz/ ukitzen bere leiho” (183. or.) (*Hitzak eta kezkak*). “Goizeko zortzirak dira, /.../ ilargia tristeziaz,/ oihu bat entzun da: “Al blanco!./pi-pan-pun, ta Txiki ziplo...” (90.or.)



(*Barren ibarrak*). "Kalean gelditu zan,/ kalean hilda,/.../ hilargiak hotz zeukan..." (31. or.), "Euskal soro ilun-tristetan/ hilargi hotzak odola, / gerrate krudel honen ondoren/ naizko ote bake gozoa?" (52. or.) "Marisantz-ek bihotzean/ lizar tristen tristezi/ (ilargia Ezpeldoian / ez da eder, ez da argi,/ arraultz hain borobila/ hor goian..." (38.or.). "Lizarpean gazta bailitz/ ilargiaren erdia...", 851. or.), "Ilargi (orain erdi, gero laurden)/ putzu hotzean hilotz,/ Adarra eta Aiako haritzak/ lainoetan iheskor" 888. or.) (*Arnas gaiztoa*). Giro tragikoa sortzeko ere erabiltzen da ilargia: "Hilargiak arraskatu du/ odolaren ustela" (62. or.). "Hilargi gaziak/ odola du isuriko,/ arrainak putzuan/ izar gordina/ du jango" (83. or.) (*Hitzak ebakitzean*).

"Arraultza" ere ilargiaren metafora bezala erabiltzen da batzuetan: "Arraultz hain borobila/hor goian nork du jarri?", "Mendiak hope-tean/galant arraultz bi,/ eguzki-ilargia/ biak ezkon nahian". Hemen mendiari pertsonen elementu bat egozten zaio, kopeta tontor gisa seinatuz.

Beste batean, eguzkiak eta ilargiak egin nahi duten ezkontza da olergai. Behin ere ados egon ez diren gauzek edo elementuek, orain, elkartzeko grina dute. Gauza berdina gertatzen da "asmoen tontorean".

- 8) *Ibarra*: "Dena negura, gerora/ dijoa, ondorengo/ ibar hotz, ilun, fingabe/ batera" (*Hitzak eta kezkek*).
- 9) *Arratsa eta gaua*: "Arrats zaharra", "Arratsaren maldabeheran/ zipres beltza nahigabean". Eta tristura gehiago azalduz, gogaitasuna errealagoa eginez: "Kea doa nagi,/ zeruak du euri". Bestalde, "Poetak egunez ere/ bihotzean gaugiro". Etxahun triste dago gartzelan, eta ez da harritzekoa bere bihotzean "gaugiroa" izatea.
- 10) *Gaua eta eguna*: Bien artean kontraposizioa dago; lehendabizi eguna eta gauarekin hasten da antitesia, baina gero gaztaro eta zahartzaroarekin asoziatzen da ("Egunaren argia/.../ haurraren far-irria/ agureak samin/.../.../ gazte hau zein/ zaharra jaiotzetik!!!") (*Arnas gaiztoa*).
- 11) *Bolkana*: "Gauzak, poemak, bertsoak/ zutzat dira bolkanak" (*Hitzak eta kezkek*). Kasu batean bolkanaren eta ibarraren artean kontraposizioa erakusten zaigu: "Barrengo bolkan zahar hura/ gaur zaida ibar ume,/ ibar hau zapaltzen dabiltz mila harri eta

basurde". Indartsua zen pertsona (bolkana) besteen menpe dago orain; ez da erreboltaria, makala baizik, etsaiek zapaltzen dute. Oraingo pertsona "ibarra" da.

Lehengo grina eta indarra non dauden galdetzen du gero poetak: "Lehengo sufre eta kristal baltzak, / zer?, lotan al daude...?./.../ non grinin artalde/ non espermen erautsia,/ non ikatz hainbeste?". Besta-dle, pertsonalitatearen aldaketa parrafo honetan ondo ikusten da: ".../ Lehen "izaten", "etsitzen" nekien. "Bizitzen",/ "ekiten", "zartatzen".../ ikasia nintzen". Bere pertsonaz hitzegiten du poetak, baina ez du ulertu nahi Euskal Herriaren egoera (*Barren ibarrak*). Amaren pubisa ere "bolkana" da, eta sabel horren barnetik "laba" ateratzen da, hots, semea, "fruta heldua" (*Hitzak ebakitzean*).

12) *Ekaitza*: Maitasuna zer den jakin nahi da, eta hori lortzeko galde-ra hauek egiten dira: "Maitasuna zer ote?/ Ekaitza hala udare, /.../ eurijasen kalte...?" (*Hitzak eta kezak*). Eztarriak "ekaitzak" dira, besoak "murailak", eta begiak "ezpatak". Indarra eta grina ikusten ditugu irudi hauetan, baino hori lehengo egoera baten islada bezala: "Lehendiko su setatiak/ noruntz dira ihesiak...?". Lehengo asmoak eta grinak, "burdian jeikiak", non daude orain?. Oraingo errealitatea eta grinak desberdinak dira: "Udazkena da, akabera,/.../ kanta harroak nekaturik (*Arnas gaiztoa*).

13) *Eguzkia*: "Begietan duzu/ eguzki gorria". Argitasuna eta bizia ematen die gauza guztiei eguzkiak, dirdaiez (*Hitzak ebakitzean*). "Arizkundik Urtsua-ra"/ eguzki, orde, laino"; "eguzki"-ak islada-turiko argitasuna gero tristura eta iluntasun bihurtzen da, hots, "laino". Asoziaketa egiten badugu, lainoak euria ekartzen du, eta tristurak negarra; paraleloki doaz, bada, euria eta negarra (*Arnas gaiztoa*).

14) *Bidea*: "Seme, seme, atozkida,/ utz bide ilun-zabarrak/ fede sendo-runtz abia". Hau da Jainkoak ematen dion kontseilua: fedearen bidetik jarraitu, bestela duda ilunetan ibiliko da, "bide ilunetan" (*Barren ibarrak*). Bidea beti "haruntza"/ beti "gerora", zahartzaro-rantz doan ildo da (*Arnas gaiztoa*). Bi zentzu hauekin agertzen da "bide"aren metafora.

15) *Negua eta udaberria*: "Orainaren aldi isila/ ezin gerarazi,/ ah, giza-negua beti/ balitza udaberri!!". Idazlearen desioa orainean

jarraitzea da, beti udaberri izatea, beti gazte irautea (*Hitzak eta kezkek*).

- 16) *Loreak, artoa eta garia*: Santa Agedaren titiak adierazteko lorearen metafora erabiltzen du. Borreroak irrikatzen ditu titi horiek, baina Agedak ezetz esaten dio. "Lore horien" jaun bakarra Jesus da. Hori entzunda borreroak moztu egiten dizkio bularrak, eta "arratsak ezin du etsi/ diti bi hoiien zauria". Azkenean, Santa Agedak "liliak" eskaintzen dizkio Jaunari ("Jauna, /zuretzat nere liliak"). Gure santaren hitzean poza dute paisajeko elemenduek: "Lizarra ta haltza kantari", "Arrain tontoak/ izarrak jaten hor-diak". Putzuan izarrak isladatzen dira, eta arrainak izarrak jaten bezala daude (*Barren ibarrak*).
- Artoa eta garia maitearen bularrak ere adierazteko erabiltzen dira: "Maitearen bularrak/ (arto ta garia)". Bular horien deskribapena geroxeago honelakoa da: "Bere bularrak gogor/ (kozkor, mozkor) dira...", eta bere begi, izter, gerria "nolako hibai hotz, luze..." (*Barren ibarrak*).
- 17) *Oihana*: "Bere iztarren oihan...". Metafora hau botanikoa da, baina deshumanizazioa ere bai, pertsona baten elementuak edo atributuak paisajearenak bailiran jartzen baitira. Metafora botaniko eta deshumanizaioekin jarraituz, beste adibideok oraindik: "Ta Edurne balkoian... Aranek iledian/ begia anpolai", "Ah, ah, zure errai/ beltza nere dezadan, / (non da holako aran?)" (*Barren ibarrak*).
- 18) *Lurra*: Monotonia "zerbait" abstraktua ere bada, eta konkretizatzeke "lurraren" irudia darabil: "Monotoniaren lurrean/ etzanda nengoen" (*Hitzak ebakitzean*).
- 19) *Izarrak*: "Zazpi izar, zazpi kolpe, / zazpiak ditu jo". "Zazpi" zenbakiaren bidez Euskal Herriko zazpi probintziak seinlatu bide ditu (*Arnas gaiztoa*).
- 21) *Ederra*: "Ederra" kalifikatiboa da, nahiz eta hemen izen bezala erabili. Autorearen desira naturaz "betetzea" da, osoro sentitzea: "... Ah, bete nadin,/ bete ederretik..." . Presoak ere soro berdeak ikusi nahi ditu, eta ezer ikusten ez duten begi horiek zelaiez "jantzi" dira (*Arnas gaiztoa*).

- 22) *Natura orokorki*: Lehenengo adibidean maitea “natura” da, eta neskatxaren begiak “grinazko anpolaiak” dira; neska horren gorputza eta izaera basatiak dira, bere haragiak “lurraren usaina” du. Ez du ezer artifizialik, izadia bezain “naturala” da.

Gorputza sentsualitatez eta grinaz beteta dago: “Ta bular-pilatu borobilen balantzan/ izarren dardarizoak”, “Gerri ta sorbaldak/ .../ gari ta artoen basa-usain” (*Hitzak ebakitzean*). Bestalde, tristura eta Euskal Herriko egoera txarra naturan isladatzen dira: “Ortuan ez aurkitzen/ ez ihintz, ez limoirik,/ soroan artoak ez/ bizar urrezkorik,/putzuetan ez ere/ ilargiak farrik” (*Arnas gaiztoa*).

- 23) *Gurpilaren metaforismoa*: Gurpilak beti “denbora” adierazten du (“Orduen gurpil zoroan”) (*Hitzak eta kezkek*).. Gizonaren erorpena deskribatzen da hemen, eta “gurpila” gelditu ezin den denbora da: “Ezin geldituz gurpila” (*Barren ibarrak*). Antzekotasun bera gurpila eta erlojuaren artean, biek denboraren irudi baitira: “Orduen gurpil honetan...” (*Hitzak ebakitzean*), “Egunaren gurpilean...”. Gurpila beti mugimenduan dagoen zerbait da, baina beti toki berera itzultzen da, egunak bezala, zerbait ziklikoa errepikatzen du (*Arnas gaiztoa*).

- 24) *Ametsa eta loaren metaforismoa*: Calderonentzat bezala, autorea-rentzat ere bizi hau amets bat da (*Barren ibarrak*). Loa heriotza da. Aita itsasoan hil da, eta semea aitari buruz galdezka ari da; hau da amaren erantzuna: “...Aita/ lo luze batez dago” (*Barren ibarrak*).

Beste kasu honetan, ordea, pasarte poetikoaren zentzua ez da berdina: “Euskal sustrai basatiak/ dituzu, zihur, lotan”. Nafarroak euskal sustraiak ditu, baina ahantzirik dauzka baitan. Azkeneko bi bertsoetan poetaren desira ikusten da: “Esna zaitetz, Nafarroa, / esna eta hauts hoiek estal!!!” (*Hitzak eta kezkek*).

- 25) *Katiluaren metaforismoa*: “Existentiaren katilu beltzak”: Irudi hau konkretizatzeko era da. Zeruaren edo ortzearen handitasuna deskribatzean, berriz: du“Zerua.../zein haundi, eder, katilu borobila...” (*Hitzak ebakitzean*).

- 26) *Lapuraren metaforismoa*: “Eliz hontako bitxiek/ badute bere lapur, / begiak, zentzunok, hatsok/ dabilta jardun da jardun” (*Hitzak eta kezkek*) . Barrunbea paisajea da: “Lineak, soroak,

haltzak/ barnetan hoska ditut,/ sartu naiz paisajearen/ elizan...Ze edertasun!". Eta paisaje horrek badu bere lapurra: poetaren zentzumen-mundua. Begien bidez kanpoan dagoen paisajea bereganatzen da, eta "kontzientzia" (oharmen) estetikoa ematen. Paisajeari kontzientziak mesede egiten dio, zeren "ederra ikuslerik gabe/ ez da ederra, da itsu,/ nere ezagumenez bedi/ materi iluna egun" (*Hitzak eta kezak*), "Izadia dut nik eliz..." (*Barren ibarrak*)..

- 27) *Zapiaren metaforismoa*: "Askatasun zapia/ hautsia oraindik..." (*Hitzak eta kezak*). "Gauaren maindirean/ mamu beltzak moz-korti/.../ nork itzali du gaua, / ilargi puska, hautsi...?". Zati hau "Pena berdetan" olerkian agertzen da, eta antz izugarria du poemak García Lorcaren estiloa eta tematikarekin; *ilargiaren* garrantzia, *kutxiloak* eta *ijitoak*, eta kolore *berdearen* presentzia nabarmen olerki osoan (*Barren ibarrak*)..

Honela bukatzen dugu metaforen sailkapen, baina oraindik beste metafora batzuk aipa daitezke. Adibidez: "Kitarraren nagia notetan zintzilik" (*Arnas gaiztoa*), "Iparragirreraren gitarra/ .../ aidean puskatzen da" (*Hitzak ebakitzean*), "Aih, hibai ene, hibai ene/.../ ur hotz hoiek soro ispilu, / pisaje gaitzen gatilu!/ Hibaian mila paisaje" (*Barren ibarrak*).

Petsonifikazioak eta deshumanizazioak ere metafora dira, nolabait; adibidez hurrengo biak. "Arratsa musika zoroz/ orrazten da..." (*Barren ibarrak*), ".../Zabor-ontzira botatako/ abortu madarikatua/ nintzen". Azkeneko hau deshumanizazioa da; poetak ez du ezer baloratzen bere pertsona, pesimista da; berak esaten duen bezala "Laban kirats batek/ pozaren katea/ hautsi zidan lehen" (*Hitzak ebakitzean*).

## II. 6. Erotismoa

Luis Mari Mujikaren poesian tratamendu erotikoa, ausarta ez-ezik, oso moderno eta sugerentea gertatzen da —irudi bortitzen gara-tua—, eta jadanik 1965 urterako, ordurarte —Mirandek ezik— euskal poesiak isladatzen ez zuen sentsualismoa eskaini zuen.

Hauek dira Mujikaren poesi-liburuetan aurki daitezken adibide esanguratsu batzuk:

“Maite, zuregana/ gertu nadinean/ desirak labanaz/—grinazko gauean—/ soinaren larrua/ hautsiko, agian?/.../ Begi horiek/ zai-zkida kalte, /ah, zaude, zaude, / maite enea!/ Instant sentsual,/ —haragi banal/ lodi honetan—/ grina baino ez / nire jabea. Ez, ez. Nadin beti/ grinetan librea” (89. or.).

“Edurne.../ Bere betarteak/ usain kolorea, / barneko odolak/ grinazko kolpea./ .../ Berdezko begiek/ naute bai zoratu,/ desiren labanek/ zorrozki zulatu,/ bular bi zuriek/ oih, ze miramendu!/.../ Haren ederrean/ hozka ta hozka,/ haren hetartean/ ebaki ta goza/ laban sentsualak,/ desira gureak...”, (91.or).

“Ah, ah Edurne,/ zure begia, / zure gerria,/ zure argia, / lizar berde,/ egun sentia./ Begietan duzu/ eguzki gorria,/ ezpainetan, aizu,/ amets ugaria./ .../ Ah, ah, Edurne, / zure gorputza/ limoi arbola, / izerdi berdez/ pena ederrez/ oro isuria. /Ah, ah, Edurne/ zure gorputza/ lizar zuhaitza...”, (102. or.) (*Hitzak ebakitzean*).

“Zure haragian/ (ze oihan!) / nere irritsak/ oihuz eta dantzan.../ Edurne, zu zinan, / eta ni neu nintzan...!” (85. or.). “...Zure bularrak, hibai bero bi”. (87. or.). “Garbiñeren gorputzean/ grin gaitzak oihu dire, / Garbiñeren gorputzean/ ( aih, bular, aih, betarte!) / zazpi hirrits, zazpi desira,/ zazpi gau luzeen gose.../ Bere hortzak, bere ezpainak, egarriz asegabe, / ah, maitearen, ah, gizon/ ezinaren hutsune.../ Garbiñeren izterrak (ah,/ ze izter labain ta luze!) / hibai gordinak bezala/ dira beltz, kupre, kupre,/ baina Garbiñe sabelan/ oraindik golde gabe...!”.

“Maitea, ederra zera/ plaia bezain beltzaren), / haragi bizkor horretan/ sartzerik ote dut ahal?/ Zure haragiak ardo/ harroen sua, bolkan/ basatien gaitza.../ .../. “Maria, aih, aih, Maria,/.../ farra duzu freskoa,/ ardoa bezain tente7.../ bere izterren ikatza/ zein gorri, zein hainbeste, / begi hoiien ardoa/ zein gozoa ta zein bete.../ Maria, zure izterrak/ armoniaren usain. ez/ inon usainik izter/ gazi hiek hainbeste...”. Gero, horrela jarraitzen du mutilak: “.../ ikatza su bezala/ bihotza duda labe. / Asmoen kutxiloa/ ze zorrotza, ze tente, / zainen bero mozkorra/ nola epel daiteke?”. (155. or.) (*Hitzak eta kezkek*).

“Bere begiak kristal/ hotz-gordin (ezin autsi), / bi bularren piloan/ su mozkorra dantzari.../ .../ Edurne, maite enea,/ zentzunak aunitz hibai,/ soin horren olatuak/ dardaizoa ze garai!./ .../ nork soin horren putzua, su zuminez kiskali, / ah, zure bular biak/ altu dira eta ugari, / erraiaren beroan/ haziak ezin eutsi...”, 859. or.). “Maitea, esan,.../.../ esan norentzako duzun/ sabelpeko lorea...(Ixo!)”.

“Maiteak usain latza/ larruan jarria, / usaina ta amorea/ aranaz nahasia,/ .../ Maitearen bularrak/ (arto eta garia), / bere gorputz-usaina/ bai latz, bai gordina..., / ah, ah, nere enearen/ begi, izter, gerriak/ nolako hibai hotz, luze,/ sakon ihesiak...!/ Bere bularrak gogor/ (kozkor, mozkor) dira...”. Eta mutilaren sentimenduak adieraziz: “Begi hoi en euriaz/ asmo gazteak blai / ardozko desiretan/ zutaz asea naiz, / ah, zein plazer, zein eder” (68. or.) (*Barren ibarrak*).

A) *Sintesi* bat egin nahiaz, adibide hauetan sentsualtasuna nabarmentzen da. Ia zentzu-atal guztiak erabiltzen ditu Mujikak neskaren gorputza deskribatzeko:

- 1) *Ikusmena*: Hemen konstatatzen dira adibide gehienak; poetak begiekin ikusiak deskribatzen dizkigu (fisikoki, edo, bestela, irudimenaz): “Maite, ederra zara” (*Hitzak eta kezka*). “Ah, zure bularbiak/ altu dira eta ugari” (*Barren ibarrak*), “Izterren kolorez/ zinuztan ikusi” (*Arnas gaiztoa*).
- 2) *Usaimena*: “Bere haragiaren hibai/ ta usainak” (*Hitzak ebakitzean*), “Maiteak usain latza/ larruan jarria” (*Barren ibarrak*), “Aranen usainez” (*Arnas gaiztoa*).
- 3) *Ukimena*: “Zure musuaren beroa” (*Hitzak ebakitzean*), “Zure bularrak/ hibai bero bi”, “Baita zure izter, betarte,/ gerri, sabelpeko oihan/ beltzaren osoa...Ukitu/ dut, besarkatu bertan” (*Hitzak eta kezka*), “Bere bularrak gogor” (*Barren ibarra*).
- 4) *Dastamena*: “Bular gozoen hibaiaz”, (*Hitzak eta kezka*), “Aran more-erreza/ beti ohi da geza!” (*Arnas gaiztoa*).
- 5) *Zentzu guztiak batuta*: “Zentzunak hozka ta hozka/ zure izter, bular, beso...” (*Barren ibarrak*).

Deskripzioa oso zehazki egiten da; gorputzaren zati guztiak azaltzen dira, usaina, forma, kolorea..., eta abar. Ez hori bakarrik, poetak berarengan (edo maitatzailearengan) sortzen diren sentimenduak ere azaltzen dizkigu: “Maitea, zuregana/ gertu nadinean/ desirak labanaz”, “Grina baino ez/ nire jabea”, “Barneko odolak/ grinazko kolpea”, “Berdezko begiek/ naute bai zoratu,/ desiren labanek/ zorrozki zulatu”, “Nire grinak/ basoko piztiaren kolpeak/ bezain bortitzak dira” (*Hitzak ebakitzean*). “Begi en gosea hozka/ basaki bere soinan,/ grinaren mozkorra haserre”, “Aih, aih, nire ezpatak zutik,/ tente hara-

gi hortan”, “Desirak haragi hortan/ hortz dira eta laban”, “Asmoen kutxiloa/ ze zorrotza ze tente/ zainen bero mozkorra/ nola epel daiteke” (*Hitzak eta kezak*), “Ardozko desiretan/ zutaz ase naiz,/ ah, zein plazer” (*Barren ibarrak*).

Maitearen gorputza eduki eta maitatzailearen grina adierazteko erabilitako metaforen artean *labana*, *ezpata*, *hortza*, *goldea* eta *kutxiloaren* gisakoak. Elementu zorrotzak, min ematen dutenak dira. Horrela dakusagu sentimendu horrek maitaleari min ematen diola; maitearen gorputza eta amorea lortu nahi ditu; hori gabe ez du atseginik. Odola ere bor-borka zainetan, tentsioz betea.

B) Ikus dezagun zein *elementu* azaltzen diren neskaren soina deskribatzerakoan. Banaka azalduko ditugu:

- 1) *Ardoa*: “Zure haragiak ardo/ harroen sua”; “Haserrezko ardo bikain/ bat zurekin dut edan”, “Begi hoi en ardoa/ zein gozoa ta zein bete”, “Farra duzu freskoa, / ardoa bezain tente” (*Hitzak eta kezak*), “Zure soinaren kobrea/ ardo beltz-gazteen gorrotoz...”, “Bere bularrak gogor/ (kozkor, mozkor) dira” (*Barren ibarrak*).
  - 2) *Aranak*: “Maria, zure izterrak/ aran moreen usain” (*Hitzak eta kezak*), “Usaina eta amorea/ aranaz nahasia”, “Ah, ah, zure errai/ beltza nere dezadan,/ (non da holako aran!)” (*Barren ibarrak*). “Eder, xamargarri/.../aran beltza zinan”, “Bular hoiiek farrek,/.../ Aranak zalantzan...”, “Ez naiz zure aran,/ aran more erreza/ beti ohi da geza” (*Arnas gaiztoa*).
  - 3) *Ibaia eta itsasoa*: “Bere haragiaren hibai...”, “Biok bat gera/ura/ ta lur egartia bezala,/ itsas hedatua/ta kontinentearen luzea bezala...” (*Hitzak ebakitzean*). “Zure bularrak / hibai bero bi”, “Garbiñeren izterrak/.../ hibai gordinak bezala/ dira beltz kupre...”, “...Sexo/ hori ze itsaso dan”, “Hibai hortan nadin gal...!!!” (*Hitzak eta kezak*).
- “Eduerne, maite enea, / zentzunak aunitz hibai,/ soin horren hola-tuak/ dardaizoa...”, “Noiztik soinean hibaia/zuk hain sakon ta hain sendo”, “Ni igeri/ zure haragitan oro”, “Nere enearen/ begi, izter gerrak/nolako hibai hotz, luze,/ sakon, ihesiak...” (*Hitzak ibarrak*).
- 4) *Sua*: “Sua, kobrea ta egarria/ zara, maitea”, “Sua bezala/ eskaini zidan...”, “Ikatza su bezala/ bihotza duda labe” (*Hitzak eta*



- kezkak*), “Bi bularren piloan/ su mozkorra dantzari...”. (*Barren ibarrak*).
- 5) *Oihana*: “Zure haragian/ (ze oihan!)”, “Gerri, sabelpeko oihan” (*Hitzak eta kezkak*). “Ah, bere iztarren oihan” (*Barren ibarrak*).
- 6) *Zuhaitzak*: “Ah,ah, Edurne,/ zure begia,/ zure gerria,/ zure argia,/ lizar berde/.../Ah,ah, Edurne,/ zure gorputza/ limoi arbola./ Ah,ah, Edurne/ zure gorputza/ lizar zuhaitza...” (*Hitzak ebakitzean*).
- 7) *Eguzkia*: “Begieta duzu/ eguzki gorria” (*Hitzak ebakitzean*).
- 8) *Lorea*: “Zertarako lore ederra/ begiralerik gabe” (*Hitzak eta kezkak*). “Esan norentzako duzun/sabelpeko lorea...” (*Barren ibarrak*).
- 9) *Ikatza*: “Bere izterren ikatza/ zein gori...”, “Ikatza su bezala” (*Hitzak eta kezkak*).
- 10) *Artoa eta garia*: “Maitearen bularrak/ arto ta garia)” (*Barren ibarrak*). Ikusten dugunez, kasu hauetan naturako elementuek konnotazio erotikoz hornituta eskaintzen zaizkigu. Batzuetan, Nerudaren metaforismoa hurbiletik azaldu bide da. Gaua eta iluntasuna izaten dira amodio horien laguntzaileak: “Bi argi, bi gorputz, / grina bi,/ gauaren beltzean/ ta haren atseginean...” (*Hitzak ebakitzean*).
- 11) *Goldea*: atal honetan “goldearen irudia aipagarri, batzuetan simbolismo falikoa duela poetarentzat. Garbiñe, nahiz eta neska ederra izan, “oraindik golde gabe” azaltzen da, eta bere etsipenean gorputza naturari erakutsiko dio. “Naturak, bai, osokiro / bilduko ni maitale,/ eta sabel sakon honetan/ sartuko golde bere!!!” (*Hitzak eta kezkak*). Ez dugu ahantzi behar oihuek eta esklamazioek indar handia ematen dietela olerkiei, eta adierazkor bihurtzen dituztela: “Ah, zaude, zaude,/ maite enea”, “Bular bi zuriek/ oih, ze miramendu/ “Ah,ah, Edurne...” (*Hitzak ebakitzean*), “Aih, aih, nire ezpatak zutik”, “Ez, ez ditezela itzal” (*Hitzak eta kezkak*), “Ah, ah, zure errai” (*Barren ibarrak*).

## II.7. Sinboloak

### a) *Harria*:

Sinboloak ugariak dira Luis M. Mujikaren poesian. Maiz, baliapen surrealistetan biltzen ditu sinboloak. Lehenengo sinbolo argia "harria" da, eta Euskal Herria adierazten du, askotan, berarekin. "Zizelaren zigorrez/ zera, bai, ernea/ historiaren marmol/hortzean kolpea,/ Euskal Herri, nere herri/.../ gaur eskulptituko dut/ nik harri zurea"; ".../ Vaskoek erdara ahoan, / harriak, orde, euskaraz..." (Arnas *gaiztoa*). "Harria ta herria/ hemen bat, bat dira..." (*Hitzak eta kezak*). Sinbolo hau nabarmen G. Arestiren irudietan.

### b) *"Zezena" eta "idia"*:

Bien arteko kotraposizio garrantzitsua. Zezenak indartsuak, erre-boltariak dira; inork menperatzen ez duen zerbait sinbolizatzen du zezenak; idiak, berriz, menpekotasuna, etsipen isila, hitz batean, bes-teen menpe bizitzea. Poema liburuetan, maiz, irudi hori Euskal Herriari eta euskaldunei aplikatzen zaie: "Ah, ah, zauriturik ere/ euskal zezena zutik,/ idi makurren nagiaz/ zezenak ez saminik" (*Hitzak eta kezak*). Nafarroari esaten dio: "Amorroa, burdina / zinen (zezen harroa) / atzo metal irakina,/ gaur idi isil mantsoa". Ildo beretik "Hondamenezko larrean/ zezena itzuli da idi". "Herri zahar hau zezen/ zen lehen, orain idi", "Ah, idi isila berriz/ zezen beltz itzuli" (*Hitzak eta kezak*).

### c) *Herria*:

Euskal Herriak baditu sinbolo "topikoak", nahiz eta ez izan egitazkoak. Euskal Herriaren kontra dagoen jendeak horrela ikusten du gure Herria: "Berde, zuri, gorri heze,/ zapi apainen farra,/ kaiku, dantza ta txistuen/ soinu folklore erraza, / kolore hoi hutesan/ gal nahi zaituzte..." (*Hitzak eta kezak*).

Mutil euskaldunek, herria askatzeko bizia ematen dutenak, Euskal Herria sinbolizatzen dute; haiei egina Euskal Herriari egiten zaio. Eustakio Mendizabal heriotzara daramate gurdi batean, eta "*gurdian herri hau dago*" dio poetak.

d) *Arbolak*:

Arbolek sinbolismo berezia dute, eta, besteen artean, hurrengoak aipagarri:

- 1) *Altzifrea (zipresa)*: “Zelaiaren naigabea/-zipres beltz-txoliña”; “Al-turera botata/ zipresa/.../ Zipresa bañu urdinean bezala”. “Bañu” hori zerbait irrazionala da: zerua itsasoa bezala tratatzen du (*Urdin eta burni*). “Zipresa/ (Atzo/hil zena)” (*Hitzak ebakitzean*).
- 2) *Pinuak*: Nabarmenki pinuak ez zaizkio atsegin poetari, eta negatiboki azaltzen dira olerki gehienetan: “Muñoan pinua/ neguan negua”, “Piñudi morea, / paraje ulzera/ Euskal Herri hotzaren/ sinbolu tristea”, “Oi piñu, oi piñu,/ biotzean antzu!” (*Urdin eta burni*).
- 3) *Fagoa*: “Fagoa/ (Grinaz/ itoa)” (*Hitzak ebakitzean*).
- 4) *Lizarra*: Lizarra da poetaren arbola kuttunena, dudarik gabe. “Lizarrei/ gaur diet galde egin” (*Hitzak eta kezka*). “Barneko dolore hontan/ lizar hotzak negar berde” (*Barren ibarrak*), “Zure gorputza/ lizar zuhaitza” (*Hitzak ebakitzean*).

e) *Natura*:

Zuhaitzak ez-ezik, izadi osoa —paisajea— sinbolo da poeta-entzat. Bertan atzematen da Jainkoaren existentzia, eta ederraren lekukoa. Edertasuna errepresentatzen du izadiak: “Sartu naiz paisaje-  
jean/ elizan... Ze edertasun” (*Hitzak eta kezka*). “Jainkoa “baden, ez den”, harriei, lizarrei / gaur diet galde egin, / “zabaldu begiak,/ edo-  
nondik dabil”, / —entzun didate—/ “argi ego ezin” (*Hitzak eta kezka*).

f) *Negua eta udaberriaren sinboloak*:

Lehendabizikoak tristura (“Barren eremu/ biotzean negu”), biziaren bukaera adierazten du; bigarrenak poza, ilusioen berpiztea: “Baze-torren/—zeturten—/ promesen udaberri” (*Urdin eta burni*).

Paisajearen garrantzia Mujikaren poesien nabaria da. Pertsonifikazioetan naturaren sentimenduak agertzen dizkigu; pertsona modura tratatzen ditu zuhaitzak eta beste elementuak. Nor da pertsona hori? Poeta bera, noski, ze zuhaitz batek ezin du ezer sentitu. Autoreak sentsazioak, antsiak, tristurak eta pozak naturan, paisajearen isla-datzen ditu. Poemarioetan azaltzen den paisajea Euskal Herrikoa da,

baina kolore batzuetan, *okrea* ematerakoan adibidez, Gaztelako paisajearen eragina nabarmentzen da.

Ikusi dugunez, Mujikaren poesigintza metaforaz eta irudiz beteta dago. Bere estiloa oso zaindua da, eta horregatik, hasierako klasifikapenean *hirugarren* atalean jarriko genuke poetaren sorkuntza. Beste aldetik, bere olerkiak ulertzeko aski zailak dira, irudi *irrazionalez* baliatzen delako oso maiz. Surrealismoaren influentzia nabaria da autore honetan, eta, batzuetan, G. Lorca, Neruda eta hurbilagoko poeta. Metaforen garadura estetika pertsonal batean biltzen da. Poetak hone-lak deskribatzen du bere poesia: "Nire poema/ amets oniriko/ —infraerotiko—/ baino ez zen..." (*Hitzak ebakitzean*). Mujikaren irudiak euskal literaturan "berriak" gertatzen dira, indarrez beteak, batez ere, liburuen argitalpen urtea ikusita, lehenengoa 1963 urtekoa izaki. Euskal poesian ez da hain maiz eta ugari gertatzen halako sinestesi, metafora eta irudi-sortarik. Metafora-arloa, zehazki, poeta gutxik garatu du Mujikak bezainbat. Bere eredu asko kanpokoak dira.